



ARGI BAT AZALDU ZAIGU

Urte Berri On guztioi!!

Haur bat jaio zaigulako berrion zoriontsuarekin, Gabonak aiena ditzala gure barruko beldur, zalantza, gogorik-ez edo ilusio faltaren itzal eta iluntasun guztiak; izan ere Haur jaio berri horrek argia eta itxaropena bait dakartza berarekin.

Zabal diezazkiogula belarriak aingeruaren aldarriari: "Berrion pozgarri bat dakarkizuet". Berri on hori entzun beharra dugu. Berri on hori barru-barruan sentitu eta bizi beharra dugu. "Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna da zurekin"

Jainkoak bere biziaz bete gaitzala -"Hau bat jaio zaigu"- hasi berria dugun urte honetan.

Eguberri zoriontsua.

Jexus Artola



Edukia

1. Argi bat azaldu zaigu
Urterako zereginak

2. Erreportaia
Asis sarea / Red Asís

3. Txostena
Forum de jóvenes Santiago '09

4. Berriak
Labur labur
Iñakiri omenaldia

URTERAKO ZEREGINAK

Hor gabiltza bizitzan gure bizimoduari zentzua, ilusioa, gogoia, bizitzeko arrazoiak, lanerako eta aurrera tiratzeko motibazioa emango dion ez dakit zeren bila. Bila eta bila gabiltza, erregu eta arrenka eskatuz bizi dugunak balio dezala zerbaitetarako edo norbaitentzat.

Eta Jainkoak bere modura erantzuten digu, berak egin ohi duen modura alegia, zuzeneko erantzunik eman gabe. Haurtxo egiten da, gutako bihurtzen da, ahul, babesgabe, titia, musuak, kariñoa behar duen haur... Azken batean hori baita balio duena. Zer zentzu du bestela mundu honetako gure joan-etorri eta nekeak maitasunik gabe?

Jainkoarentzat berarentzat maitasuna baldin bada garrantzikoena, nola ez da ba halaxe izango guretzat ere? Merezki ote du gero maitatzeak, gizon-emakumeen alde jokatzekoak, besteentzat bizitzeak? Hori da "altxor ezkutua", esaten digu Jaunak, "zorionekoa berori aurkitzen duena". Eta Mariak gertakari guztiok gogoan hartzen zituen, bere barruan hausnartzu.

Gure mailan, ondoko zeregin hauek dauzkagu aurrera begira:

- II. European Meeting Santiago 09 deiturikoa, abuztuaren ospatuko dena.
- Madrilgo GP Foroa, azaroan gauzatua; garrantzi handiko gertakaria; izan ere beronek gauzak berriz pentsatzeko eta orientatzeko gaia eskaintzen bait digu.
- Asis Sarea, frantziskotar espiritualtasun mugimenduaren proposamena.

Jexus Artola

Jainkoak bederzinka zaitzala eta zaindu; eta zure bederzaka zuzen ditzala urte berri honetan



NAVIDAD ES COMO LA LOTERÍA. LLAMA A UNA PUERTA Y SE DEJA DIEZ

ASIS SAREA

Honez gero ia denok jakingo duzue, Kantabria eta Gaztelako eskualdean oraindik zabaldu ez badugu ere, zertan datzan Asis Sarea: Erlijioso eta laikoen artean sakoneko intuizio bat partekatzeko ahalegin bat da; alegia, frantziskotar espiritualtasunak ba duela ahalmena gaurko jende askok sentitzen duen zentzu egarriari erantzuna emateko. Intuizio honetatik abiatuz proposamen xume, ireki eta praktikoa egin dugu.

Proposamen hau frantziskotar espiritualtasunaren ondoko klabe hauetan finkatu dugu:

- Bere bilaketan Frantzisko Asiskoak Jainkoarekin topo egiten du, eta zera aurkitzen du haxe dela bere bidea: Jesusen jarraitzaile izatea, Haren Ebanjelioa bizitzea.
- Bide hori apaltasunetik eta pobretasun espiritual eta materialetik bakarrik egin edo ibil daiteke.
- Horrenbeste maitasun, solidaritatez banatzeko edo partekatzeko da.
- Jesusengan, pertsonetik eta inguratzen gaituen guztiarekiko senidetasuna aurkitzen du Frantziskok.

Uste dugu klabe hauetan finkatuz posible dugula eguneroko bizimodurako baliozko den espiritualtasun bat eraikitzea, sare honen bidez bakoitza bere unearen eta bere interesen neurrian inplikaturik. Ebanjelioaren eguneroko irakurketa eta hileroko gutun bat eskaintzen ditugu, bertan gogoeta xume bat egiten delarik; eta Ebanjelioa eta Frantziskoren testu bat azalduko da eta otoitzen bat ere bai, beti eskuartean dugun gaiari lotua.

Horregatik, sare honetan sartzen direnek aplikazio praktikoko bost irizpide hauetan eratzen diren frantziskotar espiritualtasunaren oinarriko lau printzipioak partekatzea onartzen dute:

1. printzipioa. Jainkoarekin harreman pertsonalizatua bilatzea eguneroko. 1. irizpidea: 15 eta 30 minutu arteko tarte bat bilatzen ahalegintzea eguneroko otoitzerako.
2. printzipioa. Barnera begirako eguneroko bizitza: apaltasuna. 2. irizpidea. Gertatzen zaigun guztia apaltasunaren klabetik irakurtzea. Ebanjelio zaporea ematea geure bizitzari.
3. printzipioa. Kanpora begirako eguneroko bizitza: elkartasuna. 3. irizpidea. Geure bizitzan doakotasunean oinarritutako solidaritatea sartzeko ahalegintzea. Konpromisoren bat hartzea.
4. printzipioa. Bide hau partekatzea, senidetasuna bizitzea. Frantziskoren nortasun ezaugarria izan zen. 4. irizpidea. Hilero otoitz bilkura ireki bat edukitzea hileko azken ostegunean arratsaldeko zazpi eta erdietan, herri bakoitzean. Eta 5. irizpidea. Asis Sareko Gutunaren hartzaile izatea. Izango da otoitz bilkurara etorri ezin den lagunik. Sarearen bokazioa irekia izatea eta partekatzea da. Horretarako ekipoak prestatu eta gutuna bidaliko die hilero izena eman duten guztiei otoitz egin ahal izan dezaten, taldean edota bakarka.

Gaur egun seihun lagunetik gora dira sare honetan parte hartzen dutenak eta laster proposamena Kantabria, Gaztela eta Errioxara luzatzea espero dugu.

Halaber, ekimen honi lotua dago Asis hirirako bidaia ere sortu zeneko leku berean bizitzeko Frantzisko eta Klararen espiritualtasuna. laz hasi ginen eta datorren udan jarraipena ematea espero dugu, geure esperientziaz bait dakigu zeinen aberasgarri gertatzen den bizipen hau. Oso errefortzu lagungarria da bilaketa pertsonalean eta frantziskotar espiritualtasunaren bizipenean.

Izena emateak Asis Sareko gutuna hartu nahi dudala esan nahi du, bere gogoeta txikiarekin, Bibliako irakurketaarekin, Frantziskoren testuren batekin, otoitzen batekin...

Asis Sareko gutuna hartzeko edo informazioa eskatzeko ondoko telefonora deitu behar da: 646 214 896 edo e-maila igorri ondoko helbidearekin: asissarea@arantzazu.org

Jexus Artola - Jose Angel Egiguren

Azaroaren 7tik 9ra GP Foroa ospatu zen Madrilen Espainiako estatu osoko GP-ko arduradunekin. 2.000 lagun inguru bildu zituen gertaera handi bat izan zen. Ongi prestatua zegoen, parte hartzeak biziak eta azkarrak izan ziren, komunikatzeko esperientzia askorekin (pertsone bakoitzak zati txiki batean soilik parte har zezakeen), baina halere erraz soma zitezkeen gaurko hainbat pentsamendu korrante eta eliz sentsibilitate desberdin .. Komunioa izan zen hitz errepikatuena, eta aniztasunean elkartasuna.

Bilkura hiru bloketan banatu zen, bat egun bakoitzeko. Lehenengoa, iraganari begirada bat emateko, izan ere ez baitzen alferrik Foroa Eskolapioen GP-ko azken 50 urteen azterketa egiteko pentsatua. Azken 50 urte hauek zer eman duten aztertu zen pastoral planteamendutan, ospakizunetan eta abar, baina benetan arrakasta lortu zuena, batez ere, Migueliren abesti emanaldia izan zen.

Bigarren eguna gaurrean zentratua zegoen, gaur zer egiten den, gaur zer pentsatzen den. Eta esperientzia eta komunikazio gama oso zabala izan zen. Aurkeztu ziren 160 baino gehiagotik 60 inguru aukeratu zituen Organizazioak, eta partaide bakoitzak hauetako 9ra soilik izan zuen sarbidea. Oso interesgarriak, batzuek ezer gutxi edo batere zerikusirik ez zuten gurekin, baina ilusioa nabari zen, lanerako eta gauzak egiteko gogoia, sormena... eta, batez ere, erlazioa, koordinazioa eta lan bateratua.

Hirugarren blokea, etorkizunari begiratzeaz arduratu zen. Erronkak, zereginak, hitzaldi eta mahainguru baten bidez bildu nahi izan ziren argitasunak. Eta erreferente bat etengabe hegan parte-hartzaileen gainean: Elizaren gainean beren ikuspegia eta beren itxaropenak planteatzen zituzten kaleko zazpi gazteren bezperako testigantza.

Topaketa, hori ere izan zen, topaketa alegia. Alde batetik beren Elizbarrutiek, izan ere Elizbarrutietatik bait gentozen. Niri oso ongi etorri zitzaidan Donostiako eta Gasteizkoekin egotea, naiz eta ez ginen luze egon. Han zehar zebiltzan, halaber, Santanderko Jose Andres, Salva eta Granadako neska gazte batzuk, Caceresko Manolo Buiza, A Coruñaiko Natalio, Kataluniako Joan Pujol eta abar ere...

Itxaropen eta argitasun euri txiki freskagarria geure eginkizunerako.

Jexus Artola

Santiago '09

Jada martxan dago II. European Meeting Santiago 09 deiturikoa, abuztuaren 9tik 15era ospatuko dena; Leonetik abiatu eta Santiagon amaituz. Europa osoko 1.500 bat lagun elkartuko garela kalkulaten dugu. Lehen bilkura Asisen izan genuen duela bi urte, 800 gazte ingururekin, baina kasu hartan asko samarrek huts egin zuten, batez ere italiarrek.

Gertaera hau prestatzeko martxan dauzkagu maila desberdineko bi ekimen. Alde batetik, Europa osoko Boluntarioen Topaketa, urtarrilaren 1etik 5era, bi frantziskotar Konferentzia bakoitzeko, eta guk bi Penintsulako Probintzia bakoitzeko. Gure Probintziatik: Nagore Luengo, Eider Txarterina eta Jexus Artola. Boluntario hauek arduratuko dira Meeting delakoren antolaketaz.

Beste aldetik, eta abuztuko topaketaren prestaketa modura, San Damiango Gurutzea frantziskotar Probintziak korritzen ari da, Gurutze hau Frantziskotarren Jeneralak eman zigun topaketaren lekuko gisa. Gure Arantzazuko Frantziskotar Probintziak maiatzaren 1ean hartuko du Gurutzea Betika Probintziaren eskutik. Probintzia osoan etxez etxe pasatzea espero dugu.

Begira ezazue lotura hauek ba ote dituzuen:

<http://www.santiago2009.es/>

<http://www.pjvofm.org/2activi/08tau/00menu.php>

<http://www.pjvofm.org/2activi/08tau/05tau09.php>

Topaketaren web orrialdea

Ekimenari sarrera

Topaketaren Helburu eta Eguteki zehatza

Anima zaitetzte europear topaketa honetan parte hartzeko.

Jexus Artola

ARANTZAZU: Urriaren 25ean Asisko Espirituaren eguna ospatu zen Arantzazun. Jonan Fernandezek hitzaldia eman zuen "Bizitzeari eta elkarrekin bizitzeari" buruz. Oinarrizko 4 ikaskuntza". 250 bat lagun etorri ziren.

BAKETIK: Bere programazioa azaldu du ikasturterako, gatazkei etikoki aurre egiteko ikastaroak, foro-teatroa, Asisek Arantzazuri egindako proposamena, Arantzazu Afrikarekiko topagune gisa...

Arantzazuko Frantziskotar Probintziako fraideen **KAPITULUA:** Pazko astean egingo da Arantzazun. Bertan aukeratuko dira Probintziala eta Goardianak (komentuetako nagusiak) eta gainerrako arduradunak. Hiru urtean behin egiten da Kapitulu edo Kongregazioa. Kinielak zabalik daude beraz...

DONOSTIAN: Azaroaren 22an Iñaki Etxebeste anaia hil zen Atotxako komentuan. Urte luzez bera izan zen bertako parroko eta GP-aren bultzatzailea. Haren hiletan, Mutiloako baserri zaharrean hainbat bider Iñakirekin bildutako gazteek omenaldi hunkigarri bat eskaini zioten.

BILBO: Abenduaren 13an San Antonio Abesbatzak ongintzako kontzertu bat eskaini zuen Bilboko Euskalduna Jauregian frantziskotarren komentuko Jantoki Sozialaren alde. Partzuergoak, Los Mitos, Urkok, eta abarrek parte hartu zuten. Auditorioa topera bete zen eta jendea oso gustura irten zen. Giroa (laguntzaileak, zaleak, ordezkariak) primerakoa izan zen


VALLADOLID: Abenduaren 1ean Sortzez Garbiaren Parrokiako Sendotzako Katekesi taldeek Abenduko ospakizun bat egin zuten ondoko lema honekin. "Bihotz bat jaiotzen ari da". Abenduak leihoak zabaltzera eta geuregan bihotz berri bat sortzen ahalegintzera inbitatzen gaitu.

Azaroaren 22 eta 23an 2. urteko Asis Taldeko gazteak (Unibertsitateko 1. eta 2. urtekoak) Valladolidko frantziskotar Konzepzionisten komentuan bildu ziren Proiektu Pertsonala egiteko. Bi egun pasatu zituzten denbora pertsonalarekin, taldean, laguntza pertsonalarekin, ospakizunak gauzatuz eta Jainko onarekin topaketak eginez. Bi egun, gelditu eta norberaren bizitzaren gainean gogoeta egiteko, zer bizi dugun eta nola bizi garen aztertze eta bizitza besterik gabe pasa ez dakigun ahaleginak egiteko, eta ez bizitza gugandik, baizik gu izan gaitezen bizitza-tik igaroko garenak on eginez eta arrastoa utziz.

¡HOR DOA! Gure web orrialdeak (<http://www.ecosfranciscanos.org>) 25.200 bisita dauzka dagoeneko. Zorionak hau posible egin duten guztiak eta **EGUBERRI ZORIONTSUA** eta **2009 URTE BERRI ONA** opatzeko aprobetxatzen dugu abagunea.

ADI! Zenbaki honetan leku faltagatik informazio gehiago sartu dugu web orrialdean, ondoko honen gainean:

- Justiziaren aldeko lana gaurko Elizan (hitzaldi laburpena).
- Asis'08 esperientzia (Kronika zoragarria).
- Pastoral ekimenak Gazteekin Gasteizko Elizbarrutian.



IÑAKIREN OMENEZ

Iñaki Etxebeste frantziskotarra zen, Atotxako parroko izan zen urte luzez. Pertsona klabea izan zen parroki horretako gazte pastoralean. Hainbat monitore eta belaunaldi desberdinetako gazte mordo bat aldarera inguratu zen eskuetan kandelak eta San Damiango gurutzea zekartela haren hiletako elizkizunean. Aldi berean, Bea Gomezek ondoko testu hunkigarri hau irakurri zuen Iñakiren omenez:

Iñaki denontzat izan da: parrokiarentzat, anaiartearentzat, Egia auzoarentzat. Baina bereziki Atotxako gazteontzat espiritu eta gizatasun erreferentzia handi bat izan da Iñaki; urte askoan bidea erakutsi digun argia izan da Iñaki.

Kandela hauek, argi horrek gutako bakoitzarengan piztuta jarraitzen duela adierazten duten lekuko izan nahi dute. Eta urte luzez Mutiloako baserrian egon den San Damiango gurutze honen aurrean utziko ditugu. Denok dakizue nolako garrantzia eduki duen gazteontzat Mutiloako etxeak. Zenbat une eta oroitzapen gozo Iñakirekin baserri zahar hartan!

Une hauei eta hark parroko gisa egindako lanari esker, belaunaldi desberdinetako ehundaka gazte ezagutu dute Jesusen egiazko aurpegia. Formularik gabe otoitz egiten ikasi dugu, bizitzaren alde topa egiten ikasi dugu, gure zailtasunak eta frustrazioak partekatuz. Probokazioa eta gauzei buruzko sakoneko galdeketa izan ziren Iñakiren tresnetako batzuk, baina batez ere haren gizatasun handiak, bere inkongruentzia, lehentasun, seta eta guzti, are eta gizatiarago eta jatorrago egiten zuten gure Iñaki.

Halabeharrez, larunbat honetan gutako batzuk etxe berriak egiteko laster botako duten Mutiloako baserri zaharrean izan ginen. Guretzat esanahi sinboliko handia daukaten gauza batzuk erreskatatu ahal izan genituen. Besteak beste, gurutze hau. Itzulerakoan Joseanek gauza hauek guztiak ekarri zituen Atotxara eta Iñakiri erakutsi ahal izan zizkion. Mutiloako gurutze honetan irudikatutako gazte guztiok Iñakirengandik despeditu ahal izan ginen une horretan. Eta dakizuen bezala handik oso ordu gutxira eman zuen bere azken hatsa. Goian bego.

Seguru aski Mutiloako etxea ere desagertuko den urtean utzi gaitu Iñakik. Halere, haren espirituak elikatuko du beti kandela hauen argia.

Mila esker Iñaki. Beti egongo zara gure bihotzetan.

Iñigo Odriozola. San Sebastian

Informazio partikularreko buletina da hau, Probintziako kideen artekoa, eta beronen hedapena dohakoa da.

Arantzazuko Frantziskotar Probintzia
Informazio buletina: 7. urtea 27. alea

Argitaratzailea: Arantzazuko Probintziaren
Fede eta Teknologia Institutoa.
ofmsanturtzi@santur.e.telefonica.net
web: <http://www.ecosfranciscanos.org>

